



ATAUN EGIN
ELKARREKIN
HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA.



AURKEZPEN SAIOAREN MEMORIA
SAN GREGORIO. ATAUN, 2023/10/05

Bertaratutakoak

Herritarrak	Hogei lagun: 16 emakume eta 4 gizon
Udal ordezkariak	Martin Aramendi (Alkatea); Ion Sukia, Maider Irastorza eta Mikel Dorronsoro (Hirigintza zinegotziak)
Lantalde teknikoa	Hektor Espin, Eñaut Muñoa (Astazaldi), Ibai Alcelay (Ekolur), Irati Iturbe eta Inesa Ariztimuño (Aztiker)



1- SARRERA ETA KOKAPENA

Martin Aramendi alkateak egin du saioaren irekiera prozesua kokatu eta helburuak gogoraraziz.

Ondoren, Aztikerrek HERRI-PLANA eta HAPOren lanen nondik norakoak azaldu ditu laburki.

2- AURREDIAGNOSIAREN AURKEZPENA

Saioaren gaiari heldu aurretik, Hektorrek aurreko saioaren (Herritarrak eta ongizatea) datu eta gako nagusiak laburtu ditu.

Ibaik eta Hektorrek aurkeztu dute LURRALDEA ETA INGURUMENA-ri dagokionez aurre diagnostiko teknikoaren laburpena. Hiru zatitan egin dute aurkezpena:

- Diagnostikoa
- Gakoak
- Erronkak

Ikus. LURRALDEA ETA INGURUMENA. AURKEZPENA

3- PARTAIDEEN BALORAZIOAK/ EKARPENAK

Aurkezpenaren ondoren, bi erronda ireki dira herritarren inpresioak, iritziak eta proposamenak jasotzeko. Jarraian jasotako balorazio eta ekarpenak:

ENTZUNDAKOAREN **BALORAZIOA**

ZERK DEITU DIZU **ATENTZIOA?**

- San Martin eta San Gregorio auzoak batzeko proposamenak harrিতuta. Beti bananduta irudikatu izan ditut.
-

ZERK DU **GARRANTZIA** ZURETZAT?

- San Gregorion erreka ondoko zuhaitzak gestionatzea (?)
 - Auzo batetik bestera oinez edo bizikletaz lasai eta seguru joateko aukera izatea.
 - Nola elkartu auzoak?
 - Soroak, lurrak, baratzak babestea. Hauetan ezin da eraiki. Lur urbanizable gehiago ez.
 - Hainbeste etxe huts egonda berriak ez eraikitzea. Etxe hutsei irtenbide bat eman beharra.
-

AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

ZURETZAT, ZEINTZUK DIRA ATAUNEK DITUEN **ERRONKA NAGUSIAK?**

- Nola uztartu balio agroekologikoa duten lurrak babestea eta hirigune nagusi hori sortu/eraikitzea. Zerri emango zaio lehentasuna?
 - Kezka hirigune nagusi horrek ez ote dituen Aia eta Ergoien berriro ere baztertzen. Gainbeheran jarraituko ote duten kezka. Aian konektibitate arazo handiak daude. Auzo hauek indartu nahi dira.
-

4- ITXIERA

Ixteko, eskerrak eman eta hurrengo deialdiak eta proposamenak zein iradokizunak egiteko bideak gogorarazi eta bukatutzat eman da saioa.

Ataunen, 2023ko urriaren 5ean.